

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

09/9/18 | 308

- Ikurrina alboan, Euskal Herria ezagutzen
- Gaztetxea Tolosako gazteen beharrak asetzeko
- Ttapa Alegiako antzerki taldea berriro martxan
- Pako Aristi, Libreta horiko poemak
- Daiari elkarrizketa
- Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

## Zorionak

bikaina izan da!





# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .


**Denda:** P<sup>o</sup> San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com



**aldama\_tapia**  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel. 943 650 375  
Faxa 943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)



**SALDIAS MIGUEL**

**CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurak  
Kotxe-asegurak  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurak  
Denda-asegurak  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

## MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

2  
betaurreko  
kristalak barne  
97€

2  
konbinatu  
mō

J. Carlos Guerra 1  
Tel. 943 79 29 95

ARRASATE

Ibargarai 16  
Tel. 943 76 15 75

BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS  
Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta 2  
Tel. 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mixelena, 7  
Tel. 943 51 78 11

ERRENTERIA

Mendibil M. G.  
Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Erp.  
Tel. 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70

TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
 6-behea.  
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 655 004  
 Faxe: 943 654 983  
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
 Webgunea: www.galtzaundi.com  
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.  
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,  
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo  
 Banatzaileak: Olatz,  
 Juankar Arregi  
 Idazkaria: Edurne Mendia  
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
 Diseinua: Zigor Agirrezabala  
 GOITIK  
 Azala: Galtzaundi  
 Inprimategia: Antza.  
 Tirada: 5.000 ale  
 Lege gordailua: 55-906/91  
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO  
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



## Erreportaia: Ikurrina bihotzean, Euskal Herria begietan

Mendi martxak batzuetan, bizikleta ibilaldiak besteetan, edo piragua zeharkaldiak zenbaitetan; hau guztia egiten dute, baina konometroa alde batera utzita. Helburua, Euskal Herria ezagutzea da. Hamaika txoko eder ikusi dituzte, bateko eta besteko lagunak egin, eta jai giroan primeran pasa dute ekimena gauzatu den aurreko bi aldietan. Hirugarren aldi honetara zu ere gonbidatu nahi zaituzte.

8-11. orrialdeak

«Oso argi daukagu zein den gure zeregina: Herriaren alde lan egitea. Gure jarrera eraikitzailea da, bai lehen eta bai orain. Beraz, lasai egon daitezke EA bozkatu zuten guztiak, dedikazio berdinarekin edo gehiagorekin jarraituko dugu lanean».

Elkarrizketa: Onintza Lasa

16-18. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Joxe Agustin Arrieta eta Unai Igartua	4-5
	Normalizazioa: Alfabetatze kanpainari babesa eman dio UEMAK	6-7
	Eskualdeko albisteak: Inpernu gaztetxearen sorrera	12-13
	Eskualdeko albisteak: Ttapa Alegiako antzerki taldea	14-15
	Irakurlearen begietatik: Pako Aristi, libreta horiko poemak	19
	Kultura: Daiari elkarrizketa	20-21
	Kirol salta: Getaria-Tolosaren denboraldi bikaina	22-23

## Galtzaundi beti bedi berri



Joxe Agustin Arrieta  
Irakaslea

4 Urte batzuk badaramazkigu “Galtzaundi” ale honekin. Era xume batean zuregana iritsi nahian dabilen aldizkaria da. Ez da berdina komunikatzea eta hedatzea edo zabaltzea. Zenbat komunikabide iturri ez ote ditugu ezagutzen? Zenbat kate, kanal, web orrialdeak, egunkari eta aldizkariak, internet... Zer esan ezta!...

Nik gauza bat argi daukat: Hedabide asko ditugu, baina komunikabide gutxi. Informazioa gurdika, komunikazioa kizaraka. Eta badakit informazioa oso garrantzitsua dela, baina zerbait beharrezkoa duguna komunikazioa da. Komunikatu, elkarrizketatu, aukerak eman eztabaidatzeko eta bideak erakitzeko, eta nola ez, bakardadea apurto eta zubiak eraiki, esperientziak elkar banatu eta etorkizunerako bideak ireki.

Galtzaundi aldizkariak Tolosako eta Tolosaldeako kultur-zuzia, herrigintzako hazia eta bailarako espiritua bideratu eta

bultzatu nahi du, era anitzean eta errespetuz: gure arteko kezka, animoak, aupadak, gertakizunak, gogoetak, asmoak... Behintzat nik honela sentitzen dut eta asmo honekin idazten dut.

Hainbat esperientzi berrieekin eta gaztetxoei toki gehiago eginez, nik uste Galtzaundi komunikazio eskola ere izan behar duela. Ez da erronka makala. Aniztasuna, errespetua, egizaletasuna, gertutasuna... Badakit hitz potoloak direla, baina egitasmoa errealitate bihurtzea haxe “hordagoa”. Eta komunikazio-falta bihotzeko gaixota-

suna baita. Eta komunikazio-eza ez da sendatzen, pertsonak bata bestearen ondoan jarri, bihotzetik bihotzerako bideak lotuz baino.

Galtzaundi ez da bakarrik informazio iturri, baita komunikazioaren leihoa ere. Informazioa ugaltzea eta bizkortzea ongi dago, hori izango da helburu, baina ez da nahiko, pertsonek

komunikaziorik gabe ez baitakite bizitzen. Eta komunikazioan pertsonak elkarrekin topo egiten dute. Egia da gure etxeetan irratiz, telebistaz eta internetez ondo hornituta gaudela, ondo informatuta aurkitzen gara. Baina hori, berriro diot, ez da nahiko. Komunikazioa oso beharrezkoa dugu.

Besterik ez, irakurle!

Probidentzia osoa zerbitzu ongarri bat da. Zerbitzatzen du lainoak, zerbitzatzen du haizeak, zerbitzatzen du erretenak.

Zuhaitz bat landatu behar den tokian, landa ezazu zeuk; hutsegite bat zuzentzeko dagoen tokian, zuzendu ezazu zeuk; inork egin nahi ez duen ahalegin bat, egin ezazu zeuk; izan zaitez bidetik harria kendu zuena, bihotzetatik gorrotoa eta arazotik oztopoak.

Osasuntsu izatearen poza dago, eta zuzena izatearena, baina batez ere, zerbitzatzearen poz ederra, neurrigabea.

Zeinen goibela litzakeen mundua dena egina balego bertan; landatu beharreko arrosarik ez balego, aurrera eraman beharreko eginkizunik.

Ez dezazula pentsa lan handiekin bakarrik merezimenduak izaten direnik; badira zerbitzu txikiak; mahai bat konpondu, liburu batzuk txukundu, neskato bat orraztu, eta abar luze hori ezin moztu, horregatik Galtzaundi bultzatu, hamabosteroko aldizkaria hornitu, irakurri, mimatu, babestu eta aberastu.

Gauza eder eta baliotsu bat aurkitzen dugunean, zer egiten dugu? Ziur asko, geure lagunei edota etxekoei erakustera joan behar da. Eta haiek esango ziguten/zizuten: “Hori da suertea!”. Ba, horixe: “Zorionak Galtzaundi”. Aurrera eta jarrai urtez-urte, mendez-mende.

## «Sua»-rekin jolasean

Komunikabidetatik at diot, gizakia oro har duen informazioaren morroi delako, eta informazio guztia ildo beretik jasotzen badu, gizaki manipulatuan bihurtzen da. Egungo gerrak etsaiak hilez baino gehiago, komunikabideen agintea lortuz irabazten dira.

Egin, irratia eta Egunkariaren itxierak denok dakigunez ez ziren emaitza juridiko baten ondorio izan, gobernu espainiarraren taktika bat baizik. "Komunikabideak kontrolatu eta masa sozialak kontrolatuko dituzu".

Aznarrek berak, Balkanetako gudan, etsaien tropei eraso egin beharrean lehenik eta behin Serbiarren komunikabide zentroa suntsitu beharra zegoela azpimarratzen zuen, eta badira beste mila adibide (gobernu adina).

Bada esaera bat, zera dioena; "Oihan batean zuhaitz bat erortzen bada eta inork ez badu entzuten, zuhaitz horrek erortzean ez du soinurik ateratzen", era berean, Amazonaseko oihanean, enpresek beraien dirutzak egin ditzaten, soldaduak bidali eta indigena herri bat bortxatu, kanporatu eta erailtzen badute, eta honen berri inork ematen ez badu, indigena familia horiek ez dira existitzen, ez dira bortxatuak izan eta ez dituzte erail.

Belen Esteban Evo Morales baino mila aldiz famatuagoa

den herri honetan informazio ideia eta pentsaera ezberdinak zabaltzea beharrezkoa da, eta ez naiz ari espainiar gobernuak euskal komunikabideetan duen botereaz, informazio aniztasunean baizik, aukera ezberdinak izan eta bakoitzak nahi edo gustuko duena irakur edo ikus dezala, eta aterako ditu bere ondorioak.

Guztiok saiatzen gara jasotzen dugun datu guztiekin gure iritzi pertsonala ateratzen, baina ezjakintasunak oso ahul egiten gaitu. Futbola, delinkuentzien notiziak, laneko ordu guztiak, drogak, guzti horrek jendea beste alde batera begiratzea ekartzen dute. Bitartean munduko biztanleriaren erdia baino gehiago miseria larrian bizi da, baina berdindio, guri eragiten ez digun bitartean...

Ze egia den ezjakintasunak zoriontasuna ematen duela, eta horren atzean ezkututzen gara, eta ni naiz lehendabizikoa.

Bien bitartean, "SUA"-rekin jolasean gabiltza, eta honekin ez dut esan nahi erretzeko arriskua dugu-nik. Benetan jolasten ari gara, ongi pasatzen dugu, lagunak egiten ditugu, eta esperientzia ahaztezina izaten ari da. Bide batez, gure umiltasunean beste informazio mota bat zabaltzen saiatuko gara, Belen Estebanetik haratago.



Unai Igartua  
Eneko Aritzaren lagunak taldeko kidea

Laster estreinatuko da "SUA", herritarrek eginiko filma, batere presupuestorik gabe eta ilusioaren bultzada indartsuaz eginiko film amateurra. Egun hain baldintzaturik dauden komunikabideetatik at, batere presiorik gabe, eta luzemetraion bat egitea ez beste mila helburu dituen proiektua.

# UEMAko udalerriek **eus**kaltegi<sub>e</sub>tako mat

Aurten, udalak ahalegin berezia egiten ari dira herriz herri ikasle taldeak sortzeko, eta, horretarako, udaletxeetan izena emateko aukera eman dute, diru laguntzak eskaintzeaz aparte. Helburu nagusiak hauek dira: erdaldunak euskarara hurbiltzea eta euskaldun alfabetatugabeek alfabetatze taldeetan izena ematea.

Tolosaldeko Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko udalek euskaltegien matrikulazio kanpainarekin bat egin dute. Izan ere, UEMAko herrietan, eskualdeko bi euskaltegien eskaintza zabaltzen ari dira kartelen, esku orrien eta etxez etxe banatutako gutunen bidez. Udalak ikasle taldeak herrian bertan osatzea bultzatzen ari dira, eta, horretarako, diru laguntzak ez ezik udal instalazioak uzteko ere prest dira.

Aurtengo eskaintzak sekula baino aukera gehiago ematen die herritarrei euskalduntzen edo alfabetatzen hasteko: malgutasun handia ordutegietan, taldeak herrian bertan sortzeko aukera, autoikaskuntza, diru laguntzak...

Euskalduntzeari dagokionez, herriz herri oraindik badira euskara maila nahikorik ez duten herritar asko, orain arte euskaltegi<sub>e</sub>tara hurbildu ez direnak. UEMAK dei egiten

die euskararen munduari hurbiltzeko eta euskararen aldeko esfortzua egiteko, bai aspalditik herri euskaldunetara etorri zirenei, bai duela gutxi etorri direnei.

Alfabetatzeari dagokionez, aparteko ahalegina egingo da UEMAko herrietan. Matrikulatzeko epearen barruan, alfabetatze ikastaroen berri

kera zabalagoa eskaini nahi da: hiru hilabeteko ikastaro laburrak, astean behin edo bi egunetan aritzea, tutore baten gidaritzapean aritzea eta hamabostean behin elkartzea... Azken urteetan, UEMAko herri txikietan zailtasun handiak izan dituzte taldeak sortzeko, eta horregatik ondoko herrie<sub>e</sub>kin bat egin eta



Aitzol Udal Euskaltegiak 09-10 ikasturtea aurkeztu zuen hilaren hasieran

emango da, aurreko urteetan bezala. Baina, horrez gain, UEMAko herrietan alfabetatze premiak detektatzeko dinamika bat jarri nahi da abian. Horren helburua da herriz herri eragileekin eta banakoekin aztertzea zer-nolako interesa duten herritarrek euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteko eta nola egokitu daitekeen euskaltegi<sub>e</sub>tako eskaintza herritarren premiei eta ordutegiei.

Azken batean, gogoia duenari laguntzea da helburua, nork bere egoera zein den kontuan hartuta. Hartara, au-

hiruzpalau herrietako herritarrekin taldeak sortzeko aukera edukitzea da asmoa.

Matrikulazio kanpaina irailaren 18an itxiko du Aitzolek, Tolosako udal euskaltegiak, eta irailaren 25ean AEK-k. UEMAko herritarrek udaletxeetara jo dezakete, informazioa eskuratzeko (ordutegiak, diru laguntzak, mailak...) eta izena emateko. Tolosaldeko UEMAko herriak hauek dira: Aduna, Alegia, Altzo, Amezketta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Orendain eta Orexa.

Eskualdeko Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko udalek babesu adierazi diote Aitzol Tolosako udal euskaltegiak eta Andoaingo AEK-k abian jarri duten matrikulazio kanpainari

# Matrikulazio kanpaina babestu dute

Kultur ekitaldiak



Iraila 18  
Martxaundi

Tolosa  
Triangulo plazan 23:00etan



Irailak 29  
Idoia Sanchez

Aldaba  
18:00etan apaiz etxean



Irailaren 27  
Kultur errota

Leaburu  
16:00etan elkartean  
Txirene-ren Ogiyik karri nahi  
etzun semia"



Irailak 24  
Idoia Sanchez

Urkizu  
17:30ean apaiz etxean



Irailak 25  
Kultur errota

Txirene-ren Ogiyik karri nahi  
etzun semia"  
Berastegi  
22:00etan Urepele elkartean



II. Ibarra Galtzakomik  
Komiki Lehiaketa

Lanak aurkezteko epea azaroaren 10era arte hemen:

Galtzaundi Euskara Taldea  
Nafarroa Etorbidea 6, behea  
20400 Tolosa

Lehiaketaren oinarriak [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) webgunean



BENTA  
ALDEA  
JATETXEA

TEL.: 943 654 079  
ANOETA  
-TOLOSA BIDEAN

T X O K O L A T E G I A

K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 651 830

shanti  
kirolak

Rondilla, 11 bis  
Tel.: 943 674 074  
Tolosa



HALCON  
BIDAIK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



errotatxo  
okindegia

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038

Bai Euskal Herriari eta Ibarako Haitzetan Raju mendi taldeak, zazpi herrialdeetara irteerak antolatzen dituzte. Aurtengoa 3. aldia izango da

# Ikurrina bihotzean

## Euskal Herria begietan

Leire Zubeldia

8

Mendi martxak batzuetan, bizikleta ibilaldiak bestee-  
tan, edo piragua zeharkaldiak zenbaitetan; hau guz-  
tia egiten dute, baina konometroa alde batera utzita.  
Helburua, Euskal Herria ezagutzea da. Hamaika txoko  
eder ikusi dituzte, bateko eta besteko lagunak egin,  
eta jai giroan primeran pasa dute ekimena gauzatu  
den aurreko bi aldietan. Hirugarren aldi honetara zu  
ere gonbidatu nahi zaituzte.





Maiz urrutira joaten gara paisaia liluragarriak ezagutze-  
ra, baina Euskal Herriko zazpi  
lurraldeetan ere horrelako al-  
txor ugari ditugu. Horietako  
batzuk ezagutu dituzte Bai  
Euskal Herriari eta Ibarako  
Haitzetan Raju mendi taldeak  
antolatutako irteeretan parte  
hartu duten lagunek. Txoko  
hauek ezagutzea merezi due-  
lako etorri dira Galtzaundira  
euren esperientzia kontatu eta  
irakurleak ekimenera gonbida-  
tzera. "Imaginatuz ezin ditugun  
tokiak dude Euskal Herrian.  
Txunditurik uzteko moduko  
mendi, urjauzi eta paisaiak  
ditugu", kontatu dute Xabier,  
Unai eta Eugeniok. Baina eza-  
gutzen dituzten tokiak ez ezik,



Egun pasak aurretik  
ondo landuta egoten  
dira. Ibilaldia ez ezik,  
bazkaltzeko tokia, ga-  
rraioa eta gainontzeko  
xehetasun guztiak lotu-  
ta eramaten ditugu.




Irteerak ez dira natur inguru-  
neetan barneratuz egiten diren  
ibilaldi soilak. Tokian-tokiko  
kultura, ohiturak, gastronomia  
eta jendea ezagutzen saiatzen  
dira. Era horretan lagun ugari  
egin dituzte. "Esate baterako,  
iaz Zuberoara egin genuen  
irteeran herri bateko apaizak,



irteeretan sortzen den giroak  
ere berezi egiten du ekimena.  
"Adin eta pentsamolde guz-  
tietako jendea elkartzen gara.  
Oso aberasgarria da hori, zure-  
kiko ezberdinak diren pertso-  
nekin egoteko aukerak urriak  
izaten baitira", azaldu du Eu-  
geniok.

Totek, apaiz-etxea utzi zigun  
gaua pasatzeko. Balmasedan  
izan ginenean berriz, lagun  
talde batek bere elkartera gon-  
bidatu gintuen hamaiketako  
egitera". Beti saiatzen dira jai-  
ren bat ospatzen duten ingu-  
rura hurbiltzen, horrela erraza-  
goa egiten baita bertakoekin




nahastu eta jendea ezagutzea. Egun pasa ederrak egin dituzte, gogoan edukitzeko modukoak. "Niretzat Behe Nafarroako Baigura mendikatera egin genuen irteera bereziki polita izan zen. Baigura da Euskal Herriko zazpi lurraldeak ikus daitezkeen puntu bakarra", kontatu du Eugeniok. Unai Bardeetan eta Urbasan igarotako bizipenak azpimarratu ditu: "Bi irteerak bizikletaz egin genituen. Urbasan eguraldi txarra egin zigun, laino artean ibili ginen, baina hala ere egun ederra izan zen: Lehenik kobazulo bat ikusi genuen, eta ondoren Urederra ibaiaren inguruan ibili ginen. Bardeetan berriz, pedalei eragiten sekulako beroa pasa ondoren, laku batean freskatu ginen denok". Xabierrek Tote apaiza ezagutu zuteneko irteeraz hitz egin digu. "Zuberoan, Garizuma garaian Maskaradak ospatzen dira. Tarte horretan, aperitifak egiten dira, asteburu batean herri honetan eta hurrengoan bestean. Gu aperitifak ospatzen den herrira joaten saiatzen gara. Lehenik etxe jana eta edana eskatzen dute, eta

ondoren hamaiketako erraldoi bat egiten dute denek batera. Oso berezia izan zen" Valderejoko natur parkera egin zuten irteera ere aipatu dute. "Leku ederra da, eta Araba Errioxan geundenez, bertako bodega bat bisitatzeko aukera ere eman zigun irteera hark". Hamaika pasarte eta anekdota kontatu dituzte.

#### Denei irekitako ekimena

Argi eta garbi adierazi dute: "Helburua Euskal Herria ezagutzea da". Aukera hori ahalik eta jende multzo zabalenera eskaini nahi diote, eta horregatik, antolatzen dituzten ibilaldiak xamurrak izaten dira. "Gehienez hiruzpalau orduko ibilaldiak izaten dira, edonork egiteko modukoak". Familian egiteko ere egokiak dira. Xabierrek haurrak eraman izan ditu berarekin, eta ez dela arazorik izaten adierazi du. "Jendeari kontatzen diozunean non izan zaren asteburuan eta zein leku ikusi dituzun, ni ere gustura joango nintzateke erantzuten dute inbidiaz. Gero ordea ez dira etortzen", azaldu du Eugeniok. Eskaintza erakargarria den arren, beti jende bera omen da irteeratan parte hartzen duena. "Ez dugu jendearengana iristea lortzen. Kartelak jartzen ditugu, sakelekoen bidez sms-ak zabaltzen ditugu, ahoz ahokoa lantzen dugu... Alferrik ordea". Eugenioren ustez, talde itxi baten irudia ematen dutelako da. "Denak gara norbaiten senide, lagun edo ezagunak. Horregatik, baliteke getto baten irudia ematea". Hori ez da horrela ordea. Ekimen irekia da,



Gehienez hiruzpalau orduko ibilaldiak izaten dira, edonork egiteko modukoak.



eta edonork har dezake parte. "Izugarrizko pagotxa da ekimen honek eskaintzen duena: Egun-pasak aurretik ondo landuta egoten dira. Taldetxoak egiten ditugu, eta talde bakoitza irteera bat antolatzeaz arduartzen da. Ibilaldia ez ezik, bazkaltzeko tokia, garraioa eta gainontzeko xehetasun guztiak lotuta eramaten ditugu. Gainera, ez dakigu nola, baina irteera merke ateratzeko modua lortzen dugu beti". Beraz parte hartzaileak ez du ezertaz kezkatu behar.

#### "Geurea Ikurrina"

Lagun giroan paraje berriak ezagutzeari aldarrikapena ere gehitzen diote martxa talde honetan. Izan ere, Euskal Herriko zazpi lurraldeetara bidaiatzeak badu zerikusia euskal naziotasun sentimenduarekin. Iaz bezala, aurten ere "Euskal Herrian zehar geurea Ikurrina" lemapean egingo dituzte irteerak. "Lehenko ohitura berreskuratuz, mendi tontor batera igotzen garenean ikurrina jartzen dugu bertan, edo behintzat argazki bat ateratzen dugu". Idatzitxo bat ere prestatu dute mendietako postontzietan botatzeko. "Ezagutzen ditugun pertsoneri ere banatzen diegu idatzia, geure ekimena eta geure pentsamoldea ezagutu ditzaten".

Aurtengo ikasturtea hasi



Bardeetan bizikletaz egin zuten ibilaldia.

dute jada. Hilabete hasieran Urdaibain egon ziren. Hurrengo irteeran probintzian bertan geratuko dira Donostia bisitatzeko. "Urriko irteera Kilo-metroak egiten den herrira gerturatzeko baliatzen dugu. Aurten trena hartu eta Pasaia joango gara. Hemen-dik Donostira egingo dugu ibilaldia, gero, festaz gozatzeko". Maiatzara arteko irteerak ondoko koadroan ikus ditza-kezue.

"Niri asko gustatzen zait jendearekin egotea, hortaz, irteera hauetan oso ondo pasatzen dut", dio Unaik, "gainera, era honetan zure burua

behartzen duzu, eguraldi txarra egiten badu ere etxetik ateratzera". Eugenioentzat bisitatzen dituzten herrietan egiten dieten harrera da aberasgarriena: "Ezagutzen ez duzun leku batera joan eta hango jendearekin sortzen den harrema ez da ezerekin ordaintzen. Nire kasuan, ekimen honek, herriko gazteekin hartu-emanetan jarraitzeko bidea ere ematen dit". Hori guztia, eta noski, urrunera egindako bidaietan ikusten diren parajeei inbidiarik ez dieten lekuak ikusteko aukera ere bai. Zuk ere baduzu guzti honetaz gozatzeko aukera! ☺

## Euskal Herrian zehar, geurea ikurrina

2009-2010 ikasturteko irteerak

- Urriak 4, Gipuzkoa: Pasaia-Donostia (Kilometroak)
- Azaroak 8, Nafarroa: Etxalar
- Otsailak 28, Lapurdi: Zugarramurdi, Sara Urdazubi (Hiru kobazuloak)
- Martxoak 13-14, Xiberua: As-teburu pasa
- Apirilak 18, Araba: Ozaeta-Garaio
- Maiatzak 30: Behe Nafarroa: Donibane Garazi



lizena emateko:  
652.715.800 / 685.737.324

# Xirimiri

*Txokolategia*  
Xabier Izagirre

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

## ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA



Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA



LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 -TOLOSA

# SANTAMARIA



## Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoan erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

Argi-Lanak

**Argi lanak, antenak  
eta portero automatikoak**

Apaiz-Erreka, 5  
20400 IBARRA  
Tel.: 943 675 878  
Faxa: 943 674 181  
Mobila: 639 72 42 60

## Martin Eceizabarrena



Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822



Abuztuaren 17an egin zen apeadero ondoko elizaren okupazioa. Hilaren 20an desalojatu zuten.

# Inpernu Gaztetxea, Tolosak

Beste herri askotan bezala, Tolosan ere, kaletik lokalera sartu dira koadrilak. Fenomeno honen ondorioz, herriko gazteak elkarrengandik urrunago daude orain. Gainera, lokaleko kortinen atzean, kaleko arazoak ikustezin bihurtzen dira. Egoera honekin kezkatuta dagoen gazte talde batek apeadero ondoko eliza okupatu zuen abuztuaren 17an. Orduan sortu zen Inpernu Gaztetxea, Tolosako gazteak elkartu eta gazteen problematika lantzeko gune bezala ulertzen dutena.

Erredakzioa

Herritar asko bezala, Gal-tzaundi ere oporretan zegoen Inpernu Gaztetxea jaio zen egunean. Okupazioaren nondik norakoak jakiteko, egun horretako protagonistengana jo dugu: "Emozio handiko eguna izan zen. Urduritasuna somatzen zen. Kateak hautsi eta barruan sartu ginen momentuan, berriz, sentsazio ona sentitu genuen. Barruan gaude, beraz goazen lanean hastera". Astelehenetik ostegunera iraun zuen okupazioak. Gazteen arabera, egun horietan etengabekoa izan zen Ertzaintzaren presentzia. "Asteazken gauean jakinarazi ziguten, Udalak, Ertzaintza, Udaltzaingoa, eraikinaren jabea eta epailea biharamunerako bilera batetara deitu zituela. 11:00ak inguruan bildu omen ziren. Arratsaldeko 14:00etan etorri zen Ertzaintza eliza desalojatzera". Ostiralean manifestazio jendetsua egin zen Inpernu Gaztetxeari babesa emateko. Okupazioa gauzatu zuten gazteek sentitutako elkartasuna eskertu nahi izan dute. "Nabarmentzekoa da, manifestazioan lokalean sartuta egoten diren gazte ugari parte hartu zuela, eta Inpernu Gaztetxearen alde lan egiteko gogoia erakutsi zutela".

Desalojoa ez da Inpernu Gaztetxearen amaiera izan. Gazteak elkartzeko gune baten beharrak hor jarraitzen du, eta baita hori lortzeko grinak ere. Hemendik aurrera,

Gaztetxeari babesa eman dionten gazteekin bildu eta Inpernuren aldeko indar metaketa burutuko dute.

## Gaztetxea, gazteen beharrak asetzeko

Okupazioa ez da egun batekin bestera egindako zerbait. Inpernu Gaztetxearen sorrera hausnarketa prozesu luze baten ondorioa izan da. "Aspalditik genuen okupazioaren ideia buruan. Beharrezkoa ikusten dugu, gazteok, asanbladan, denok batera autogestionatutako gune bat edukitzea. Azken urteetan eman den lokalismoaren ondorioz koadrilak elkarrengandik urrunago daude, ez dira elkartzen, eta gazte problematika ez da aurrera eramaten", arrazoitu dute Inpernu Gaztetxeko kideek. Aipatzen duten gune hori, gazteen arazoez hitz egin eta dinamika bat aurrera eramateko elkargune bezala ulertzen dute. Tolosan badira antzeko adibideak: Bonberenea eta Otsabi elkarteak besteak beste. Gazteen ustez ordea, bi leku hauek ez dira gazteen arazoei aurre egiteko guneak. "Bonbereneak oso paper garrantzitsua jokatu du herri honetan, okupatu zenetik mugimendu alternatiboa sortu eta gazte ezberdinak bildu baititu. Gaur egun ere lan mardula egiten jarraitzen du, baina ez dugu gaztetxe bezala ikusten, gune kultural alternatibo bat bezala baizik. Gainera, bere azken urteetako funtzionamendurekin ez gaude ados".



# ko gazteen elkargunea



Tolosako Udaleko Gazteria Sailak "inposatu" nahi duen gazte ereduarekin ere ez dauke ados Inpernu Gaztetxeko kideak. "Gure ustetan, Udalarri gazteak lokaletan sartuta egotea interesatzen zaio, hilean behin Abibaren emanaldia antolatu eta gazteak apal mantentzea. Ikusi zutenean, Tolosako gazteria osoa ez dela horrelakoa, zenbaitzuk altxa egiten direla eta burujabeak direla, segituan iturri hori moztzen saiatu ziren".

Okupazioaren beste arrazoi bat, hutsik dagoen

eraikin bati erabilpen herritarra ematea da. Gazteek argudiatu dute, Tolosan etxe huts mordo dagoela eta Udalak hauek berreabili beharrean berriak eraikitzen dituela.

### Zergatik eliza?

"Lehenik eta behin eraikinari erabilpenik ematen ez zaiolako, eta bestetik, bere tamainari esker gauza mordo egin daitezkeelako bertan", erantzun dute gazteek. Eliza hau proiektu bat baino gehiagorentzat begiz jota eduki du Udalak. Hasieran,

etxebizitzak egiteko asmoa erakutsi zuen, eta ezaguna da Gorrotxategi Museoa bertara eramateko ideia ere. Bere fatxada ordea babestua dago duen balore historikoarengatik. Honenbestez ezin da bota. Gazteen hitzetan, "honek edozein proiektu aurrera eramatea eragozten dio Udalarri". Eliza okupatzearekin, batetik, gazteentzako gune alternatibo bat sortu nahi izan dute, eta bestetik, Tolosan hutsik dauden etxe eta eraikinak erabiltzea aldarrikatu.



Galtzaundi 308  
09ko irailak 18

## ALDATZ Kristaldegia


Mota guztiako beirak  
Bainu eta dekoraziorako  
ispiluak  
Beirate artistikoak  
Dutxa-ixiturak

Tel./Faxa: 943 674 845  
kristaldatz@euskalnet.net  
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



## Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08  
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294  
■ Irura ■ Faxa. 943 694291  
rotulosvicente@Jet.es



## Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak  
Ordenagailuak eta inprimatutako  
Egurrak eta jarraitutako  
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es



## ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa,  
margoak, eskultura.

Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 6



Alegiako Ttapa antzerki taldea martxan jarri nahi dute berriro. Irailaren azkenera arte eman daiteke izena Kultur Etxean

# Ttapa antzerki taldea antzeztok

Alegiar askok gogoan izango dituzte oraindik "Lurrun argia" eta "Gizonak". Ttapa antzerki taldeak herrian antzeztu zituen lehenengo bi obren izenburuak dira. 2001ean eskaini zen lehena, handik bizpahiru urtera bigarrena, eta bai batean, baita bestean ere, kultur etxeko areto nagusia txiki geratu zen. Orain, Ttapa antzerki taldea hirugarren antzezlan martxan jartzekotan dabil, eta antzerkiaren mundua ezagutu nahi duen orori luzatu dio eskuia.

Amaia Goikoetxea

"Herri honek antzerkirako betidanik izan duen lotura edo zaletasunarekin lotu beharko litzateke ekimen hau. Kultur batzordean antzerkiak beti izan du espazio garrantzitsu bat, urtean gutxienez bizpahiru antzezlan ziurtatzen saiatzen gara, eta gehiago ere egingo genuke baliabideak soberan bagenitu", dio Maider Jauregik, Alegiako Udaleko kultur zinegotzi eta kultur batzordeko kidea. Gauza jakina da, bai, Alegiak ez duela atzo goizekoa antzerkirako zaletasuna, eta ezin bestela izan, Inaxio Begiristain idazle eta antzerkigile handia (1922-1984) herrikoa izanda; halako maisuarekin, ikasleak barra-barra.

Orain zortzi urte irten zen

lehen aldiz agertokira herritar multzo batek osatutako Ttapa antzerki taldea. Izaskun Lopetegui alegiarraren zuzendaritzapean, urte hartako urtarrilaren 12an eta 13an P. Hamiltonek idatzi eta Inaxio Begiristainek euskaratutako Lurrun argia antzezlan taularatu zuen taldeak. Publikoaren harrera bikaina izan zen; bi emanaldietan kultur etxeko aretoa leporaino bete zen. Bizpahiru urte geroago T de teatro konpainiaren Gizonak komedia antzeztu zuen Ttapa antzerki taldeak, eta lehen obrak izandako arrakasta gainditu egin zuen bigarren honek.

Ordutik lozorroan egon da taldea. "Hainbat arrazoi tarteko, ezinezkoa gertatu zitzaigun



"Gizonak" antzezlan taularatu zuen taldea.

entseguekin jarraitzea, eta eten bat egin behar izan genuen", azaldu digu Izaskun Lopetegik. "Baina taldea hor dago, orain jarraipena emango diogu, eta lehengoz gain, jende berriak parte hartu nahi badu, ezin hobeto". Izaskunek behin bakarrik antzeztu zuten "Gizonak" komedia berreskuratu nahi luke. "Agian ez da erraza izango osorik ateratzea, baina zatika egin daiteke. Eszenario gainean jarri genuen goxoki bat izan zen hura, desegin egin behar izan genuen, eta orain polita litzateke berriz berreskuratzea".

Dena den, hori guztia biltzen den jendearen arabera erabakiko da. "Hasteko zer jende dagoen ikusiko dugu, panorama asko aldatzen baita, esaterako, denak mutilak izan ala denak neskak izan. Beraz, aurkeztuko dugun obra aukeratzekoan Nolanahi ere, komedia arloa

lantzea litzateke hasiera bateko asmoa.

**Antzeztoki gainera ondo pasatzen**

Honainokoa irakurri eta batek esan lezake: "Bai, baina nik ez dakit antzerkia egiten". Hori ez da arazo izango, hutsetik hasiko baitira. Ikuskizuna aurrera ateratzeko lana lau fasetan zatituko dute. Lehenengoa adierazpen tailerra izango da. "Edonor izan daiteke aktore, baina horretarako, ezinbestekoa da zenbait teknika garatzea: gorputz espresioa, ahots espresioa eta espresio dramatikoak. Horretarako erabiliko dugu tailer hau", azaldu digu Izaskunek. Horrez gain, lehen fase honetan aukeratutako testuaren egokiera ere aztertuko da, behar izanez gero moldaketak eta itzulpenak egiteko. "Eta esan bezala, kanpotik datozen ideiak ere gustu handiz onartuko ditugu".

# kirako bidean da berriro

Bigarren fasean antzezlanen murgilduko dira, eta testuari loturik dauden elementuak landuko dituzte, hala nola, pertsonaiak, espazioa, argumentua, denbora eta gaia. Hirugarren fasean eszenatokiari dagozkion elementuetan jarriko dute arreta: eszenografia, jantziak (karakterizazioa), musika eta iluminazioa. Eta laugarren fasean beste herrietara ateratzea legoke; distribuzioa (dossiera, gutunak, email-ak...), gizonak berreskuratzea, ideia berriak...

Antzerki taldean parte hartzen duenak aspektu ezberdinak landuko ditu, eta horien bidez ikasiko du antzerkia egiten. "Azken finean, antzerkia egitea bakoitzak bere burua ezagutzeko modu bat da. Gu ondo pasatzera igotzen gara antzeztokira, horixe da lortu

nahi duguna, eta horregatik, probatu nahi duen edonori ireki nahi dizkiogu atea. Esperimentatu, bere burua ezagutzeko beste modu bat deskubritu, sentimenduak landuz. Aberasgarria iruditzen zait", dio Izaskunek.

## Aukera guztiak irekita

Entseguen antolaketa ere datorren jendearen arabera-koa izango da. "Jendea zer nolako jarrerakin eta zer nolako aukerekin etortzen den ikusi, eta horren arabera finkatuko dugu taldearen dinamika. Nire ikuspuntutik gutxieneko ordu kopuru batzuk beharrezkoak dira, asko kostatzen baita obra bat montatzea. Lurrun argia eta Gizonak presatatu genituenean, astean bi entsegu eginda martxa hartu genuen".

Maiderek gehitu du zaila dela horrelako ekimenak gaur egungo bizimoduarekin bateratzea, "baina datozenak gogoz hasten badira honetarako ere hartuko da denbora, eta behin taldean eta giroan sartuta, batzuentzat terapia bat ere izan liteke".

Bestetik, Maiderek eta Izaskunek argitu nahi izan dute Ttapa antzerki taldeak era guttietao ekarpenak onartu eta eskertuko dituela. "Esaterako, batek aktore moduan parte hartu nahi ez, baina guretzat zerbait idatziko lukeela esango baligu, primeran".

Garbi dago, antzerkia probatu nahi duen orok atea zabalzabalik ditu. Baldintza bakarra, hamalau urte beteak izatea. Irailaren azkenean itxiko da kultur etxean izena emateko epea.



**Juan Larrazpu**  
eraikuntzak, s.l.

- Baserrietako igeltsaritza eta egurrezko esturturetan adituak.
- Etxeen berrikuntzak:  
- Fatxadak - Teillatuak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966  
Jon Arruti (Orio)

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan eguncero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176


**Zumardi**

SEGUROS  
BILBAO



Aholkularitza integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877



**kutxa**

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

“Ez nago bakarrik”, adierazi du Onintza Lasak, bere alderdiak jarrera eraikitzailearekin lanean jarraituko duela ziurtatuz.

# Onintza Lasa

“Eako gizon eta emakumeok talde sendo bat osatzen dugu”

Leire Zubeldia

Ama, emaztea eta laguna ez ezik, politikari grinatsua da Onintza Lasa. Eusko Alkartasunako zuzendaritzan, hezkuntza arduradunaren zein bozeramalearen postuak bete ditu zenbait urtetan, eta udaberrira arte legebiltzarkidea izan da. Hasi berri den ikasturte hau ezberdina izango da berarentzat: Batetik, politikari bezala dituen eginbeharrak Tolosako Berdintasun Sailera murriztu zaizkio, eta bestetik, Udaleko lan taldean berrikuntzak eman dira. Andoni Iturzaetak EAren bulegoa utzi du Hamaikabat alderdira joateko, eta Josemi Gomez zinegotzi ohiaren ordeiz, Nerea Letamendia sartu da. Aldaketak aldaketa, Eak jarrera eraikitzailearekin jarraituko duela adierazi du. Bere hitzetan, “duela bi urteko hauteskundeetan EA bozkatu zuten tolosarrak lasai egon daitezke”. Oporren bueltan hartu du Galtzaundi bere lantokian, Tolosako Udaletxean.



Opor osteko sindromerik izan du Onintza Lasak?

Egia esan, denbora gutxi eman dut hemendik kanpora. Gainera, joan nintzenean bezala daude gauzak. Beraz, itzulera baino gehiago jarriaipena ematea izan da.

Nolakoa izango da EArentzat ikasturte berri hau?

Erronkaz betetako ikasturte bat izango da. Laua ez zaio egingo. Politikoki panorama zaila daukagu aurrean. Udaberrian bertan hauteskunde batzuk izan genituen, eta zergatik ez onartu, emaitzak ez ziren onak izan. Bidea ez da laua, baina gauden gizon eta emakumeak gogotsu gaude. "Gustuko lekuan aldaparik ez" esaten da.

Eskolakide izandako batzuk Alkarbide mugimendua sortu eta hemendik abiatuta Hamaikabat alderdia sortu dute. Alderdi berrira joan dira EAk Gipuzkoan zituen 53 zinegotzi eta soilik 30 geratu dira EAn. Galera handia izan da?

Zifren dantza horretan ez naiz sartuko. Soziologoa naizen aldetik, badakit datu guztiak interpretagarriak direla. Hau da: Norberak dituen interesen arabera irakurtzen dira zifra horiek. Baina tira, egia da EAko kide batzuk alde egin dutela, eta kargu publiko batzuk joan direla. Horrek ez du esan nahi ordea, afiliazioa berdin portatu denik. Gehiengoak gurekin jarraitzen du. Euskal Herri osoan eman den ihes masiboaren irudi hori ez da zuzena.

EAn lau katu geratzen zarete. Hori da komunikabideek zabaldu nahi izan duten irudia?

Bai. Errespetu guztiarekin, komunikabideetan intenzio-

nalidade handi bat egon da irudi hori hedatzeko. Beti jakin izan dugu, EA ez dela inoiz baxterero eroso izan komunikabideentzat. Zergatik? Gauzak argi esaten ditugulako eta inongo lotsarik gabe, ez baitaukagu ezkutuko interesik. Ez dakit arrazoi honengatik edo beste alderdi batzuen interesengatik jokatu duten horrela komunikabideek. EAK ia 25 urte ditu. Erakundeetan egon gara, Jaur-laritzan egon gara, oposizioan egon gara, eta argi dagoena da, bide horretan jarraituko dugula. Berririo diot, datuen irakurketa ezberdina egin daiteke. Ikusiko dugu bi urte barru izango diren hauteskundeetan zer gertatzen den.

Iñaki Galdosen ildokoek EAK hauteskunde autonomikoetan izandako emaitza txarrengatik joan direla esan dute. Zu geratu egin zara. Zergatik?

Nik oso argi daukat independentista eta abertzalea naizela, justizia sozialean erabat sinesten dudala, kezka sozial handia dudala eta soilik bide baketsuen alde nagoela. Ikusten dut Eusko Alkartasuna oso tematia dela aipatutako alor horietan. Horrela zen sartu nintzenean, eta horrela da gaur egun ere. Gure ibilbidean krisi egoerak izan dira, garai ezberdinetara egokitu behar izan dugu, baina funtsak, zutabeak, berdinak izan dira. Beraz, nik ez dut zertan alderdia utzi behar.

Hamaikabat alderdira joan direnen artean dago Andoni Iturzaeta, aspaldiko urteetan alderdikide eta udal kide izan duzuna. Ez zarete bulego berean egongo, baina lankide izaten jarraituko duzue... Nolakoa izango da zuen harremana?

Erabaki pertsonalak erabaki pertsonalak dira, eta bakoitzak jakin behar du zergatik hartzen dituen. Balio ez duena zera da: Urkoaren aurka erasoak eginez norberaren jarrera edo portaera justifikatzea. Hortik aurrera ez dago zer esanik plano pertsonalean. EAKo taldean bi pertsona geratzen gara. Eta guk

izan al duzue?

EAKo zinegotzi independente bezala hartu du kargua Nereak. Zerrendan sartu zenean ere hautagai independente moduan aurkeztu zen. Orduan izan genuen elkar ezagutzeko aukera. Oso ondo prestatutako neska da, eta lanerako izugarriko gogoia du. Oso pozik gaude



"Nerea Letamendia oso ondo prestatutako emakumea da eta gogo handia du lanerako".

oso argi daukagu zein den gure zeregina: Herriaren alde lan egingea. Gure jarrera eraikitzailea da, bai lehen eta bai orain. Beraz, lasai egon daitezke EA bozkatu zuten guztiak, dedikazio berdinarekin edo gehiagorekin jarraituko dugu lanean.

"Gu" horretan Nerea Letamendia sartu duzu. Bera izango da Josemi Gomezen ordeztariko dena. Elkar ezagutzeko astirik

Nerea bezalako pertsona batekin kontaktu ahal izan dugulako. Izugarri eskertzen diot, bai lankide bezala, eta bai EAko kide bezala, ausart jokatu eta pausu hori eman izana.

Berdintasun sailean lan eskerga egiten ari zarete. Ilusio eta gogoia dagoen seinale...

Gure hauteskunde programan berdintasun saila sortzea proposatzen zen. Betidanik



“Gure jarrera eraikitzailea da, bai lehen eta bai orain. Beraz lasai egon daitezke EA bozkatu zuten guztiak”.

pentsatu izan dut sail honek Udalean egon behar zuela.

Gogo handia daukagu, egiteko handia dagoelako. Gainera, bai politikoei eta baita teknikariek ere oso ondo erantzun dute. Bestalde, ondo prestatutako teknikaria dugu: Nik ideia mordoa izaten ditut, eta Josebe Iturriozek ere bai. Oso erraza da berarekin lana egitea. Horretaz gain, azpimarratzekoa da herri mailako emakume zein gizon taldeak parte hartzera animatu direla; Bilgune Feminista esaterako.

Udalean daramatzazun bi legegintzaldiei begira, burutu duzun zein proiektutaz zaude bereziki harro?

Dominak jartzeak lotsa ematen dit. Baina zergatik ez onartu. Zerbaitetaz harro banago, berdintasun saila sortu izanaz eta hizkuntza eskola ofiziala Tolosara ekarri izanaz da. Tolosarentzat oso gauza ona dela uste dut. Harrera bikaina izan du hizkuntza eskolak, eta horrek behar bat zegoela erakusten du. Gero, euskara mailan

etorkinekin egin dugun lanarekin ere oso gustura nago. Baina hori ez da soilik norberaren meritua izaten, jende askoren lanak egiten du posible. Azkenik, oraindik gauzatu ez den arren, haurreskola berria egiteko konpromisoa ere lortu dugu.

Eta arantzaren bat geratu zaizu?

Ez zaigu gustatu Voith-en proiektuan gauzak nola egin diren. Gerontologikoaren itxiera ere arantza bat izan zen. Pasarte hau oso gogorra izan zen guretzat. EAK proposatzen duen kafe antzokiaren ideia ere hor dago.

Tolosan bertan alderdikide asko galdu dituzu. Herriko EAKo zuzendaritza kide asko prentsaurrean agertu ziren Alkarbideri babesa emanez. Bakarrik sentitzen al zara?

Hasteko, ez ziren asko izan prentsaurreko hartan agertu ziren zuzendaritzako kideak. Eta bestetik, ez, ez naiz bakarrik sentitzen, bakarrik ez nagoelako. Lehen nuen laguntza bera dut orain. Are gehiago,

beste batzuk ere hurbildu zaizkit, liskar guzti honek eraginda. Egia da bakarrik geratu naizen irudia eman nahi izan dutela, baina hori marketing kontua da.

Ez dut esango guzti honek alderdia laguntzen duenik. Guzti hau ez dute modu inprobisatuan egin. Alderdi bat ez da egun batetik bestera sortzen. Alderantziz, modu konzientean egin dituzte gauzak. Bestela, zergatik agertu ziren kongresuaren bezperan? Niretzat, hori ez da batere jokaera zintzoa. Laburtuz: Beti hor egon direnak hor jarraitzen dute. Horregatik esaten dut, kantitateak ez duela axola, kalitatea da balio duena, eta nik, nire inguruan kalitatezko jendea daukat.

Earentzat bakarrik ez, zuretzat ere ikasturte hau zeharo ezberdina izango da. Jada ez zara legebiltzarkidea eta ez zaude EAKo zuzendaritzan. Tolosako berdintasun zinegotzi kargua mantentzen duzu soilik. Politikatik erretiratzen hasita?

Nik zientzia politikoak ikasi nituen, horretarako bokazioa izan dudalako beti. Politika zerbitzu bat bezala ulertu behar da. Legebiltzarrean sartu nintzenean, nire ibilbide politikoan pauso baten modukoa izango zela esan nuen. Gauza guztiei bezala, honi ere mugak jarri behar zaizkio, bestela hor geratu zaizteke betirako, eta hori ez da ona. Ideia freskoak sartu behar dira, bestela errutinan erortzeko arriskua dago. Herriaren aldeko lana ez da soilik diruaren truke egiten, herriaren aldeko lana ez da soilik Legebiltzarretik egiten; hemen-dik (Udaletik) ere jardun daiteke herrigintzan. Kontua da, zauden tokian zaudela lan egitea. Beste iturri batetik jan beharko dut, eta

**Politikatik alden-  
du? Ez, hori ez da  
erabakitzen, senti-  
titu egiten da, eta  
nik ezin dut politi-  
katik alden-  
du.**

nire ibilbide profesionala beste bide batetik garatu beharko dut. Baina, politikatik alden-  
du? Ez, hori ez da erabakitzen, sentitu egiten da, eta nik ezin dut politikatik alden-  
du.

Zaila izan behar du amatasuna eta politika uztartzea...

Aipatu dugun bezala orain beste egoera batean nago, eta hobeto eramaten ari naiz. Baina lehen, azpiegitura familiarri eta kanpoko laguntza profesionalari esker moldatzen nintzen. Batez ere, familia-sarea oso garrantzitsua da. Eta hor, azpimarratzekoa da amonen papera. Bitxia da, baina beste etxeetan senarrek duten papera, nire etxean nik betetzen nuen. Nire inguruko guztiek izan dute zereginen bat edo beste. Egia esan, batzutan gogorra egin zait. Nik seme bat dut, eta umeei aitona-amonon eta aitaren beharra dute, baina amarena ere bai. Nik nahi baino denbora gutxiago eman diot, eta orain hori konpentsatzen saiatzen ari naiz.

Zein asmo dituzu aurreantzean?

Udaletxeko zereginekin jarraituko dut. Eta tira, nire ibilbide profesionala norabide batean zuzendu beharko dut. Oso esperientzia ederra izan da urte hauetan legebiltzarrean bizitu dudana, eta orain, Udaletik lan egitea egokitzen zait.

## Irakurlearen begietatik



Jone Gorostarzu  
Irakurlea

“Hau da Euskal Herria:  
burges putaz beteta dagoen  
munduko herririk iraultzaileena.”

“Erosteko gure ahalmenetik bizi den  
lantegi erraldoia da gizartea,  
eta publizitatea erabiltzen du erosten ez badugu  
gu gaizki sentiarazteko, guk, liluraturik,  
erosteko aukera amaigabeari  
askatasuna deitzen diogun bitartean.”

# Pako Aristi, Libreta horiko poemak

Ez dut poesiazale askorik ezagutzen nire inguruan, ezta irakurle sutsuak direnen artean ere. Beldur naiz hori ez ote dagoen, neurri handi batean, askok poesiaren inguruan duten ideia -agian okerrari- lotua. Poesia zerbait abstraktua, ulergaitza, astuna eta konplexua den ustea zabaldua dagoelakoan nago, eta horrek atzera eragiten dio jendeari olerki liburu bat zabaltzerako orduan. Ez naiz ni hasiko poesiak zer behar duen eta zer ez esaten, baina Libreta horiko poemak guztiz bestelako estiloan datorrela aipatu behar dut.

Irakurleak ez du bertan konparaketa eta metafora ezinezkoetan, abstrakzioetan eta zeharbideetan galtzeko inongo arrisuririk; aldiz, zenbaitean iritzia artikulatu bat irakur-

tzen ari den irudipena izango du. Izan ere zuzen datorkigu Aristi orrialde hauetan, kritiko, zorrotz, ironiko, zirikatzaile, indartsu. Laurogeita bat poema motzetan kapitalismoaz hitz egiten digu, Euskal Herriari egorea sozio politikoaz, maitasunaz, sexuaz, bizitzako etapa ezberdinez, diruzalekeriaz, hipokresiaz. Ez du ia inor bakean uzten, eta ez da horrelakoetan sarri egiten den moduan politikariak, gizartea edota mundua letra handitan kritikatzearen joera errazean erortzen. Aldiz, norbanakoa-ekin, zu eta ni bezalakoekin ere sartzen da, eta hemen batetik baino gehiagok urrestilarra berari zuzenean ari zaiola seintituko du.

Ez da, beraz, inor libratzen Aristiren akuiladetatik. Umeak izandako bikote zoriontsuak,

euren zoriontasuna haurretara baino mugatzen ez dutenak, Benidormera joaten diren zaharrak... batzuetan badirudi munduarekin haserre dagoela Aristi, nahiz tamalez azkenean denok munduaren pieza izaten amaitzen dugun, katearen segida, berak ere poema batean onartzen duen moduan. Ni munduan nago, / eta parte hartzen dut bizitzaren erritu guztietan.


Liburutik gehien gustatu zaidana askotan lortzen duen identifikazioa da, eta kontzientzian eragiteko duen ahalmen hori. Bere esanekin ados egon edo ez, neurri handiagoan edo txikiagoan, liburu irakurtzean zenbait esaldi buruan il-tzatuak geratuko zaizkizu eta, Pakoren baimenarekin, hortik aurrera bizitzan bidelagun izango dituzu.

Hausnarketara eramaten gaituzte Aristiren hitzek, eta beharbada hori da idazlearen helburua, bere iritzia azaltzea baino gehiago geurea probokatzea, ez baita erraza hori gaur egun. “Pentsatzea deserosoa da, euripean ibiltzea bezala” esan zuen Pessoa, eta guk nahiago dugu pentsatu barik bizi, nahikoa dugu xiri- miri apur bat etxe zuloan geratzeko.



## Daia: "Abesti bat egiten dudanean, modernoa, berri<sup>tz</sup>ailea izatea nahi dut"

20



Ainhoa Fortea tolosarra azken aldiko Euskal Dance musikaren ordezkari garrantzitsuenetakoa da. "Daia" izen artistikoarekin 2003an "Nire ametsa" diskoa plazaratu ostean, hiru abesti berriekin itzuli zaigu ilehoria. Doinu ausartak jorrotzen ditu, ondo pasatzera animatzen gaituztenak. Amaitzen ari den udan bazter guztiak dantzan jartzen dabilela, emanaldi eta emanaldi artean, eta lanak utzi dion unean, hartu du tartetxoa Galtzaundirekin egoteko. Ez da geldi egoten den horietakoa.

Gorka Otaegi

Nor edo nortzuk ezkututzen dira Daia izenaren atzean?

Ni eta Run Down produktora gara egitasmo horren atzean gaudenak. Lehen diskoko euskarazko abestiak nik idatzi nituen arren, lana, kontzertuak, eta beste hamaika istorio direla eta, ezin dut guztia egin, eta beste bi lagun arduratu dira zeregin horietaz.

Zer esan nahi du "Daia" hitzak? Zein da bere jatorria?

Izena aukeratu egin zidaten eta asko gustatu zitzaidan.

Jatorri indiarra duen izen bat da. Egia da azken aldian izena aldatzea ere pasa zaigula burutik, gu baino beranduago hasi den talde batek antzekoa due-lako. Baina azkenean berdin jarraitzea erabaki dugu.

Aurrez ere baduzu esperientzia jendaurreko ikuskizunetan.

Hainbeste gauza egin ditut... Dantzari bezala hasi nintzen, telebistan, kontzertuetan... estilo desberdinetako dantzak eginez. UGAko dan-

tzaria ere izan nintzen. Horrez gain, aurkezle lanak ere egin ditut, besteak beste, telebistan eta Euskodance ikuskizunetan. Azken finean, denetik.

Horrek lagunduko zizun orain abeslari bezala hartu duzun erroka honetan ezta?

Bai. Baina hala ere zaila egin zait abeslari izaten hastea. Orain hobeto aritzen naizen arren, gogoan dut lehen diskoa grabatu genuenean pixka bat gogorra egin zitzaidalako abestea.



Hasierak gogorak izaten direlako...

Bai, lehenengo diskoa grabatzeko prozesua gogorra eta luzea izan zen. Orain askoz ere konfiantza handiagoa daukat nire buruarengan, askoz ere hobeto abesten dut, abestiak grabatzea askoz ere gutxiago kostatzen zait... Gainera, lehen disko horretan badauzkat frantsesez diren abestiak ere, eta nik frantsesez ez dakit ezer. Ingelesez ere baditut. Eta frantsesa baino askoz ere gehiago kontrolatzen dudan arren, beti ibili behar izaten da zuzentzen.

Ingelesa, euskara, frantsesa eta gaztelera. Zer dela eta eleaniztasun hori?

Niregatik balitz, abesti guztiak ingelesez kantatuko nituzke, nik musika guztia ingelesez entzuten dudalako. Ondorioz, hobeto ematen dit belarrira.

Baina, nondik nora bururatu zitzaizun abeslari izateko salto hori ematea?

Ingurukoek endredatu ninduten horretan. Beti esaten zidaten abesten probatu behar nuela. Egun batean animatu egin nintzen, gustatu egin zitzaizun, eta aurrera! Dantzaren

kontua, bestalde, txikitatik gustatu zaidan zerbait da.

“Nire ametsa”rekin zure ametsa bete ondoren, 3 single berri zintzilikatu dituzu sarean. Disko berri baten aurrerapena al da hau?

Egoera den bezalakoa izanda, oraindik ez dakigu CD berri bat aterako dugun edo interneteko gauza bat izango den. Dena den, nahi duenak Run down-eko webean deskargatu ditzake abestiak.

“Gizon berri bat” izena du azken singlea. Zer da abesti horretan aldarrikatu nahi duzuna?

Nik banuen ideia bat abesti honetan esan nahi nuenaren inguruan, gerora letra idatzi didaten bi neskek primeran ulertu zutena. Abestiaren gaia da beti (ni neska naizelako) ibiltzen garelako mutil perfektuaren bila. Baina hori ez dela existitzen. Hori ere pertsona bat dela, bere akatsak dituela. Ordenagailuz egiten ditugun erretratu ideal horiek ez direla benetakoak. Horregatik desagertzen da bideo kliparen amaieran ere. Amets bat delako.

Orokorrean zein gai lantzen dituzu abestietan?

Denetik. Aurreko diskoko

abestiak malenkonikoagoak dira. Azken hauek ez dute zerikusirik: Aurrez aipatu dudan gizonaren abestia; “superhappy”a den bigarren singlea, “dancefloor” izena duena (nahi duzu nirekin dantzatu, ez eduki lotsarik... tipikoa); eta grabatu behar dudun hirugarrena ere gizonen ingurukoa da (barreak) Azkenean mania hartuko ditate gizonen.

Abestiak idazten dituzuenean, izaten al duzue entzule-perfil jakin bat buruan (adina, izaera...)?

Ez. Nahi dudun bazalako abestiak egiten ditut. Modernoa, berritzailea izan dadila saiatzen naiz. Ez dut entzule jakin bat izaten buruan.

Talde askoren leloa da: “Euskal Herrian musika estilo jakin batzuetatik ateratzen bazara, nahiz eta kalitate oso ona izan, jai duzu”. Ados al zaude?

Bai. Adibidez, nire lehen diskoak house ukitu handiagoa zuen. Oraingo abestiak baino lasaigoak dira. Eta CDa entzuten dudanean konturatzten naiz kalitatezkoa dela eta produkzioa ere oso ona duela. Azken finean rock kontzertu batera askoz ere jende gehia-

go joaten da dance talde bat ikustera baino.

Behar bada, musika estilo horretako euskal talde gutxiago dagoelako?

Beti egon dira Dance taldeak: UGA, Hemendik at... Baina azkenean, jende gazteagoak jarraitzen ditu. 20 urtetik gorakoekin zailagoa da. Hala ere, nik baditut hogeita-piko urteko fanak. Baina kosta egiten da, ohituta gaudelako horrelako musika ingelesez entzutera.

Zer ikusi ahal izango du zuen zuzeneko emanaldi batera gerturatzen denak?

Zerbait desberdina dira Euskodanceko emanaldiak. Hau ez da ohiko diskofesta bat. Bost talde desberdin izaten direlako, eta dja gain, abestu ere egiten delako. Hiru orduko emanaldiak izaten dira: 1. orduan Julius mc dja aritzen da; 2.ean lau talde ateratzen gara, eta bakoitzak bizpahiru abesti abesten ditu; eta 3. orduan berriro dja ateratzen da. Gainera ikusleei opariak botatzen dizkiegu: pilotak, kamisetak, nintendoak... Jendea animatuko nuke kontzertuetara joatera. Doan dira.

# Arrauna

## Jokatu dituzten hamaika banderetatik zortzi irabazi ditu Getaria-Tolosak

Leire Zubeldia

Argazkiak: Iñaki Cruz eta Hektor Espin

Maialen Azaldegi, Irati Larrañaga, Naroa Urkola, Olatz Ortiz, Olatz Aldalur, Maite Amondarain, Joana Alijostes, Maitane Garmendia eta Amaia Doyage TAKeko arraunlarien ontziak lortutakoa ez da makala: Jokatu dituzten hamaika banderetatik zortzi irabazi dituzte. Kontxan ezin izan zuten garaipena erdietsi.

Hala ere, gustura daude Donostiako uretan egindako lanarekin: Euskal trainerurik onena izan zen, eta bikain aritu ziren arraunean.

**Zorionak!**



Kontxako finalaren egunean sentrazio onarekin sartu ziren uretan Getaria-Tolosako arraunlariak: Aurreko eguneko sailkapen proban segundu bakarreko aldea atera zieten galiziarrek; zozketan, arraun egiteko kale egokia egokitu zitzaizen; leporaino beteta zegoen portuan nabarmena zen urdina, TAKen kolorea. Irabazteko aukera han-

diak zituzten, eta horren jakitun zirela eman zituzten lehenengo arraunkadak.

Ikuskizun ederra eman zuten arraunlariak. Hasi eta bukatu, hiru segunduko aldearen barruan ibili ziren Galizia, Astillero eta Getaria-Tolosa-ko ontziak. Gipuzkoarrak estropada buru izan ziren ziabogara arte. Itzulia ematean egin zuten akatsa: Astillerok baino lau segundu gehiago behar izan zuten zia-boga egiteko. Honek bere ordaina ekarri zuen. Itzulerako luzea hirugarren postuan egin zuten. Hori






bai; ez zuten etsi, eta ikuski-zunaren alde, amaieraraino borrokatu zuten. Azkenean, Galiziako ontziarekiko hiru segunduko aldearekin (10:51,52) helmugaratu ziren. Tolosaldeko arraunlariak aurtengo Kontxan eta oro har 2009ko denboraldian egon den maila azpimarratu dute. Iaz jokatu-tako Donostiako banderan 11 minutu eta 20 segunduko denbora egin zuten. Aurten, 11 minutuetatik jaitsi dira.

Kontxako Emakumezkoen II Bandera Tolosara ekartzeko ametsa itsasoak eraman zuen. Negar malko batzuk ere erori ziren tostarera, baina egindako lanagatik harro lehorreratu ziren. Kiroltasunez garaile suertatu zen Galiziako tripulazioa zoriondu zuten, baita ezustekoa emanez bigarren postuan geratu zen Astillero ontzia ere.

Lanak amaituta, erdietsitakoa ospatzera joan ziren; Kontxan irabazi ez arren, denboraldian zehar zortzi bandera irabazi izana ospakizunerako nahikoa arrazoi bada eta.

#### Getarian harrera

Donostiako Alde Zaharrean ongi merezitako bazkaria egin ondoren, autobusean sartu eta Getariara inguratu ziren arraunlariak. Arratsaldeko 19:00etan egin zitzaion harre-ra Udaletxe aurrean denboraldiko ontzi onenari. Getariako plaza txiki geratu zen. Denek txunditurik begiratzen zieten Udaletxeko balkoian haizeak harrotzen zituen zortzi banderei. Egindako denboraldi bikainaren argazkia izan zen. Orain, Tolosako herriari egokitzen zaio bere arraunlarietako omenaldia egitea. 



## Irabazitako 8 banderak

Donostiako bandera

Zumaiako bandera

O' Groveko bandera (euskotren liga)

Orioko bandera

Gipuzkoako txapelketa

Euskadiko txapelketa

Zarautzko ikurriña (euskotren liga)

Txingudiko bandera (Hondarribi)

## irakurri entzun Ikusi



Nora ez dakizun hori  
Irati Jimenez

Zer pentsatuko zenuke oporretako argazkiak ikusten ari zarela, denetan pertsona bera ateratzen dela konturatzen bazara?

Hori gertatzen zaio Irati Jimenezen azken nobelako protagonistari. Abiapuntu hau hartuta, fantasiazko pertsonaiez osatutako istorioa sortu du idazleak. Gozatu egingo duzu.

Hero Mantra blog  
Sixty Selters


Talde beratarraren hiru-garren lan hau irailan argitaratuko da. Beraien burua "Nafar Kick Ass Rock N'Rollers" bezala definitzen dute, eta halaxe da egiten duten musikaren efektua: ipurdian ostikada jaso eta gorputza mugitzen hasi gelditu ezinik. Disko motz eta zuzena prestatu digute hard rocka eta psikodelia ukituak nahastuz; Thin Lizzy edo The Culten bezalako taldeen eragina ere aurkituko dugu bertan. 8 abestiz osaturiko errailetako rocka eta aspertzeko astirik ez.

La clienta

Zuz: Stephen Daldry

Zuz.: Josiane Belasko

Akt.: Nathalie Baye, Eric Caravaca, Isabelle Carré



Judith 50 urteko emakume ezkongabea da. Marco konpainiako mutilaren zerbitzuak kontratatzen ditu.

Mutilaren xamurtasunak maiteminduko du Judith, baina Marco hezurretarain maitemindua dago bere emazteaz. Drama erromantiko da. Kritika onak jaso ditu.

# Irailaren 18tik urriaren 2ra arteko hitzorduak

## Erakusketak

Urriaren 3ra arte – Aranburu Jauregia



- Biblioteca en guerra erakusketak dibulgatiboa. Antolatzailea, Tolosako Udal Liburutegia.

Urriak 31ra arte – Aranburu Jauregia

- Iñigo Altolagirrenen pintura erakusketa.


Hilabete osoan – Hernialdeko Ostatua

- Kubari buruzko argazki erakusketa.

## Zine Forum

Irailak 24 – Leidorren

- Eloxio Da Distancia filma. 19:15 eta 21:45.



## Zinea Leidorren

Irailak 18

- Pagafantas filma 22:30.



Irailak 19

- Pagafantas. 19:30. Desgracia filma. 22:30.

Irailak 20

- Cher Ami haurrentzako filma. 17:00. Desgracia. 19:30. Pagafantas. 22:00

Irailak 21

- Desgracia. 20:30.

## Musika

Irailak 20 – Bonberenea

- Cowtown (Erresuma Batua) eta The Bitter Teas (Chicago) taldeen kontzertuak. 22:00.



## Tolosako XI Garagardo Azoka

Irailak 17 – Zerkausia

- Garagardo azokaren barruan, Tolosako Musika Bandaren kontzertua. 20:30.

Irailak 18 – Trianguloa

- Garagardo azokaren barruan, Martxaundi V. diskoaren aurkezpen kontzertua. 23:00.





## Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Tolosaldeko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzutik Ongi etorri guztioi 2009-2010 ikasturtera.

Ikasturte berriari begira, eskualdeko prestakuntza eskaintza erakargarria ezagutu nahi baduzu, informazio osoa "clíc" batean lor dezakezu:

<http://www.ikastn.com>

Zer aurkitu dezakezu webgunean?

- Prestakuntza eskaintza osoaren informazio zabalak.
- Prestakuntza erakunde eta elkarteek buruzko informazio zabalak.
- Bizitza osoan Zeharreko ikaskuntzarekin lotutako albiste, jarduera eta loturak: eduki anitzekoak.

Izena eman eta jaso abantailak...

- Ikastaroen informazioa zure mugikorrean jasotzeko aukera.
- Prestakuntzarekin lotutako boletín elektronikoa jasotzeko aukera.

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Internet + e-administrazioa	2009-09-21	20
Administrazio elektronikoa	2009-09-21	16
Microsoft Excel 2003	2009-09-28	45
Areto dantzak	2009-09-30	40
Lorezaintzako proiektuak diseinatu, egin eta aurkeztea	2009-09-30	285
Jabekuntza gorputzetik: Afrikako dantzak	2009-10-06	30

### Irailak 19 – Trianguloa

- Bizikleta eguna Belca eta Oriako-k antolatuta. 18.00.

### Irailak 20 – Trianguloa

- Xake Erraldoia, Xake Elkarteak antolatuta. 18:00.



## La Risa Inteligente jardunaldiak

Irailak 21etik 23ra – Tolosako Kultur Etxea

- Ser feliz confiando, aceptando y sonriendo a la vida izenburupean hitzaldi sorta.

## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 18</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Asteazkena, 23</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Astelehena, 28</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
<b>Larunbata, 19</b> Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Osteguna, 24</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Asteartea, 29</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Igandea, 20</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Ostirala, 25</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Asteazkena, 30</b> Tolosa M <sup>a</sup> Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 21</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Larunbata, 26</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Osteguna, 1</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
<b>Asteartea, 22</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	<b>Igandea, 27</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Ostirala, 2</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(Iarrialdiak)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	lurreamendi egoitza
Bidegoian	943 683 361	Larrialdiak, Suhiltzaileak
Medikua	943 683 361	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 683 361	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	943 651 425
Medikua	943 653 329	943 673 022
Irura	943 690 720	943 675 320
Osasun zentroa	943 650 931	943 682 077
Tolosa	943 006 800	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	943 006 800	943 682 228
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Medikua



# SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA



Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio  
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com  
Mendizabal Baserria  
20.248-Arama (Gipuzkoa)



- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
- (bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886-943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259-943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615-943 671 149

# Muxutruk

## Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesional-tasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15

## Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m2.. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

## Salgai

- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699 806 031
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai 617 863 669
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa salgai. 617 863 669
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pinstxer arrazakoak). 645 703 634
- Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai (aulkiak, hamaka, seaska,...). 653 733 675

# Horoskopoa

Irailaren 18tik urriaren 2ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Gero eta gertuago dago horrenbeste itxaron duzun eguna. Urduri zaude, baina ez duzu zertan. Ondo egin dituzu etxeko lanak, beraz dena ongi aterako da.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Kemenarekin hartu behar duzu ikasurte berria. Hasi besterik ez da egin, eta jada gogogabeturik bazaude, ekainera arteko bidea ez zaizu xamurra egingo.



## sagitarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Eltzea sutan jartzen denean ikusten da berotzen duen edo ez. Uxatu bedurrak eta zuzenean gelde egiozu. Azken buruan, berak badaki zer bait sentitzen duzula.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Gogor ari zara lanean eta emaitzarik ez duzu ikusten. Eutsi horri, laster jasoko dituzu fruituak. Bitartean, saia zaitetz motibatu zaitzaketen ekintzak egiten.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zuhurrago jokatu beharko zenuke, jende aprobetxategi ugari duzu inguruan. Eskaintza bat jasoko duzu, aisialdiarekin lotutakoa. Jende berria ezagutzeko aukera ona izan liteke.



## capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Nahi duzun hori lortzen ohituta zaudete. Baina beti ez da horrela izango, eta hori onartzen ikasi behar duzu. Hori egin ezean zaplasteko latza hartu behar duzu. Dentistari bisita.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Berak eskertzen du zure arreta. Baina kontuz! ezberdinak dira arreta eskaintzea eta euli bat baino astunagoa izatea. Zaindu ezarria. Baztertu edari hotzak.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Poltsikoa estutu eta kutixiei muzin egitea komeni zaizu. Gastu handiko hilabeteak datoz zuretzat. Ongi etorriko zaizu dirua aurrezteko modu bat asmatzea.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Ondo begiratu gida-baimena, nortasun agiria, aseguru etxeko klausulak. Paperen bat gaizki daukazu, eta konpontzen ez baduzu arazoak izan ditzakezu.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Ekaitzaren ostean dator barea. Iraileko azken hamabostaldia oso ona izango da zuretzat, bereziki maitasunaren alorrean. Arlo ekonomikoan espero ez zenuen diru sarrera bat jasoko duzu.



## scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Altxa sofatik! Gero amorratu egiten zara erosketak egitera joan eta gustuko dituzun prakak sartzen ez zaizkizulako! Alfer xamar zabailtza. Egin gogor zeure buruari!



## piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Datozen asteek aldaketak ekarriko dituzte zure egunerokotasunera. Aldaketa txikiak izango dira, baina nahikoak zeure orain arteko marxta trastornatzeko. Lasai hartu.




# MAITRIKULA


Aitzol  
Udal  
Euskaltegia

MAILA GUZTIAK  
AURREZ AURREKO TALDEAK  
AUTOIKASUNTZA  
TITULU HOMOLOGATUAK

irailaren 18 arte  
bigilago ordutegia  
09:00-13:00 / 16:00-19:00



Rondilla 34-B, 3.a  
20400 Tolosa  
tel. 943 651 006 - 943 652 343  
[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)  
[aitzolue@tolosakoudala.net](mailto:aitzolue@tolosakoudala.net)



## Ilea buruhauste?

Guk erabat kenduko dizkizugu, bai ilea, baita buruhaustea ere.

Eta zuk zeuk ikus dezazun, **Diodo Laserraren bidezko depilazioaren lehenengo saioan %50a merkeagoa** egingo dizugu, irailan, **Maite Estetika eta Kosmetika Zentroan**.

- Nazioarteko Komunitate Zientifikoak eman digu abala.
- 0120 Mediku Taldea CE Ziurtagiria.

Promozioa irailan soilik.

Deitu oraintxe eta erreserbatu lehenengo saioa.

Tfno. 943 67 03 38 | C/ Leiza s/n TOLOSA

**Maite**  
ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA  
ondo doakizu.



Polígono Industrial s/n  
20270 Anoeta  
Telf. 943 652 843  
943 652 845



**RENAULT Espace**  
Motorea: 1.9 dci  
Urtea: 2004  
Kilometroak: 100.000

**Prezioa: 17.000 euro**



**Megane Sedan Confort Expression**  
Motorea: 1,5 cc 105 cv  
Urtea: 2007  
Kilometroak: 6.000

**Prezioa: 11.000 euro**



**Megane Confort Expression**  
Motorea: 1,5 cc 105 cv  
Urtea: 2007  
Kilometroak: 35.000

**Prezioa: 12.000 euro**



**Grand Espace**  
Motorea: 2.0 150cv  
Urtea: 2007  
Kilometroak: 9.500

**Prezioa: 26.900 euro**

Modelo	Km	DATA	PREZIOA
<b>CLIO III</b>			
CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 CV 5P	21.100	2006	11.500,00 €
Clio III EMOTION 1.5 85 CV 5P	15.000	2008	11.900,00 €
Clio III EMOTION 1.5 85 CV 5P	6.572	2008	12.500,00 €
CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 CV 5P	9.800	2007	12.500,00 €
CLIOIII PAC DYN 1.5DCI 85 CV 3P	10.000	2007	13.000,00 €
CLIOIII CON DY 1.5DCI 105 CV 3P	100	2007	14.250,00 €
<b>ESPACE IV</b>			
ESPACE 1.9 DCI EXPRESSION 5P	110.000	2005	17.000,00 €
ESPACE N EXPRESSION 2.2 DCI 16 V	84.375	2006	18.500,00 €
ESPACE 1.9DCI EXPRESSION 120 CV	27.500	2006	19.500,00 €
GRAN ESPACE EMOTION	9.500	2007	26.900,00 €
<b>KANGOO</b>			
KANGOO COMBI 4X4 1.6 16 V 95 CV	18.000	2007	13.000,00 €
KANGOO Furgón Confort 1.5 DCI	122.000	2007	7.500,00 €
<b>KOLEOS</b>			
KOLEOS DY PK2 2.0 DCI 150 CV 4X2	19.850	2008	24.900,00 €
<b>LAGUNA II</b>			
LAG2 EX 1,9 DCI	150.000	2001	5.500,00 €
LAGUNA II PRI 1.9 DCI 130 CV	105.000	2004	10.300,00 €
LAGUNA G.T.1.9DCI Con.Dyn.120 5P	117.586	2005	11.500,00 €
LAGUNA II CON EXP 1.9 DCI 130 C	25.100	2006	12.800,00 €
LAGUNA FAM II EXP 1.9 DCI 120 CV	65.700	2006	14.500,00 €
<b>LAGUNA III</b>			
N. LAGUNA III DYN 2.0 DCI 150CV	10.500	2007	24.500,00 €

Modelo	Km	DATA	PREZIOA
<b>MASTER</b>			
MASTER FURGON 3500 LAR SOB 2.5DC	164.500	2006	12.000,00 €
MASTER FURGON 35 LS 2.5 D	174.218	2006	12.500,00 €
<b>MEGANE II</b>			
MEGANE II Dynamic 1.5 DCI 85 CV	22.699	2008	12.000,00 €
MEGANE II Privilege 1.9 DCI 130 CV	27.124	2007	13.500,00 €
MEGANE 1.5dCi C.Expres. eco2 5P	23.300	2007	11.500,00 €
MEGANE II 5P CONFORT DYNAMIQUE 1	22.500	2008	13.300,00 €
MEGANE II 5P DYNAMIQUE 15DCI 85C	19.200	2008	13.500,00 €
MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 3P	16.954	2006	13.500,00 €
MEGANE II CON EX 1.5DCI 105 3P	100	2008	14.000,00 €
MEGANEII 1.5 D DYNAMIQUE 5P	6.000	2008	14.300,00 €
MEGANE II CON DY 1.5DCI 105 5P	7.000	2007	15.200,00 €
MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 5P	100	2008	16.000,00 €
<b>MEGANE III</b>			
Nuevo Megane Berlina Expression	KM0	2008	15.900,00 €
Nuevo Megane Berlina Expression	KM0	2009	16.000,00 €
Nuevo Megane Berlina Dynamique d	KM0	2008	18.000,00 €
<b>MEGANE SEDAN</b>			
MEGANE II SEDAN	6.000	2007	11.000,00 €
MEGANE SEDAN II	10.500	2.007	11.000,00 €
<b>SCENIC</b>			
SCENIC II CON EXP 2.0DCI 150CV	150	2007	17.000,00 €
GRAN SCENIC II 7PL	12.547	2007	17.500,00 €
<b>BESTE MARKAK</b>			
PT Cruiser 2.0 16 V Touring 5P	40.500	2002	8.300,00 €
León 1.9 TDI Sport 5P	138.000	2004	9.900,00 €
Astra 1.9 CDTI Cosmo 5P	76.593	2005	11.500,00 €

**bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran**  
Kontultatu beste motore eta ekipamentu aukerak. Unitate mugatuak.  
Finantziario aukera zahalak. Galdetu lasai.